

ZIAKO



Santi Yaniz

Gipuzkoa
Andoain

Josune Zaldua Goena

Andoainen, ez bairik gabe, industria-arkitekturako katalogo zabala dago. Bazkardo auzoan edota Andoain-Urnieta errepidean (Gudarien etorbidean) altxatutako eraikin-multzoak fabrikaren etengabeko berrinterpretazioa erakusten du. Hala, eraikinok *xx.* mende hasieratik 60ko hamarkadara bitartekoak dira, eta kasu askotan proposamen oso berritzaileak egin zituzten. Testuinguru honetan ulertu behar dugu, hain zuzen, garai bateko Ziako oholtza- eta pertsiana-fabrika.

Bizente Albisturrek eta Liberto Aizpuruak zurgindegi txiki bat zeukaten Txixarrain Berrin 1939an. Hamabi langile zeukaten, eta horietatik zortzi emakumeak ziren. Ekoizpen-itxaropenek hobera egin, eta 1940an beste pabiloi bat eraikitzea erabaki zuten. Andoain eta Urnieta arteko errepidearen ondoan altxatu zuten, Kamiyo Txiki baserriaren sailean. Ziako fabrika berria 600 m²-ko pabiloia eta etxebizitza bat zeuden. Jose Ignazio Ieregi industria-ingeniari eta aparejadoreak 1940ko maiatzaren 31n sinatu zuen multzo honen proiektua, Donostian. Hala ere, jakin badakigu Luis Tolosa Amilibia delineatzaileak eta proiektugileak zuzenean parte hartu zuela lan honetan. Izan ere, bere artxiboan azterlanak eta

No cabe duda de que Andoain cuenta con un verdadero catálogo de arquitectura industrial. Tanto en el barrio de Bazkardo como en la carretera Andoain-Urnieta, en Gudarien Etorbidea, se alza un conjunto de edificios que muestran una continua reinterpretación de la fábrica, abarcando un arco cronológico que va desde principios del *siglo xx* hasta la década de los sesenta y adoptando en muchos casos propuestas realmente innovadoras. Es en este contexto en el que se inserta el edificio de la antigua fábrica de tarimas y persianas Ziako.

En 1939 Vicente Albistur y Liberto Aizpurua contaban con un pequeño taller de ebanistería en Txixarrain Berri cuya plantilla era de 12 obreros, de los que 8 eran mujeres. Sus expectativas productivas mejoraron y en 1940 proyectan construir un nuevo pabellón junto a la carretera Andoain-Urnieta, en la heredad del caserío Kamiyo Txiki. La nueva fábrica Ziako constaría de un pabellón de 600 m² y una vivienda. El proyecto del conjunto viene firmado el 31 de mayo de 1940 en San Sebastián por el ingeniero industrial y aparejador José Ignacio Yeregui. Sabemos, no obstante, de la participación directa del delineante y proyectista Luis Tolosa Amilibia en el proyecto. De hecho, en su archivo particular

proiektzioak daude, bai eta Andoaingo Udalarari izapidetze-
fasean aurkeztutako proiektuen planoak ere.

Jatorrizko Ziako fabrika hormigoizko eraikina zen, terra-
za erako estalkiduna. Bertan, bi atal zeuden: batetik, oinpla-
no angeluzuzeneko eta solairu bakarreko industria-nabea,
bi hormartetan banatuta, eta, bestetik, mendebaldean, be-
heko solairua eta beste bi solairu dituen bigarren atala.
Behokoan enpresarako zerbitzuak eta bulegoak zeuden,
eta goikoetan, berriz, etxebizitzak.

Hasierako gune honetan, ondoren, handitze eta aldake-
ta ugari egin zituzten. Hala, 50eko hamarkadako argazkie-
tan ikus dezakegunez, fabrikak hainbat nabe zituen atzeko
fatxadan, eta patio angeluzuzena osatzen zuen. Nabe hori-
ek hormigoizko egitura, solairu bat, terraza erako estalkia
eta bao etzanak zeuzkaten, eta erabat funtzionalak ziren.
Agiriek erakusten dutenez, beste hainbat enpresa-ekimen
batzuk ere izan ziren; esate baterako, arotzeria metaliko-
rako profil berezien ijeketa-trena instalatzea. Nolanahi ere,
beharrezko baimenik ezagatik zapuztuta gelditu ziren. En-
presak, horrela, zailtasun handiak izan zituen, eta instalazio-
ak hainbat etxeri alokatu zizkieten 60ko hamarkadan. Intex,
Silen, Estenca eta tankerako beste hainbat enpresa egon
ziren Ziako fabrika zaharraren pabiloietan, eta, gainera,
obrak ere egin zituzten beharrian berrietara egokitzeko.
Orduantxe hartu zuen eraikinak gaur egungo itxura. Jesus
Erauskin industria-ingeniariak gidaturik, hainbat obra egin
zituzten fabrika zaharraren azalera erabilgarria handitzeko,
1966an. Handitze-lan horietan, errepidera ematen duen
jatorrizko nabearen fatxada osoari beste nabe bat atxiki
zioten, jatorrizkoa baino bi aldiz zabalagoa. Iparraldeko hor-
martean, berriz, beste solairu bat eraiki zuten. Hori guztia

encontramos estudios, proyecciones y los planos del pro-
yecto presentados al Ayuntamiento de Andoain durante
su fase de tramitación.

La fábrica Ziako originaria era un edificio de hormigón
y cubierta aterrizada en el que se observaban dos partes:
por un lado, la nave industrial de planta rectangular y una
sola altura, dividida en dos crujías, y por otra, al oeste, otro
cuerpo de planta baja y dos pisos. La planta baja se dedica-
ría a servicios y oficinas para la empresa, mientras que las
superiores se destinarían a vivienda.

Este núcleo inicial fue posteriormente objeto de nume-
rosas ampliaciones y modificaciones. Así, fotografías de los
años cincuenta presentan la fábrica con diferentes naves
en su fachada trasera conformando un patio rectangular.
Se trata de naves de estructura de hormigón, una altura,
cubierta aterrizada y vanos apaisados, totalmente funcio-
nales. La documentación apunta a una serie de iniciativas
empresariales —como la instalación de un tren de lamina-
ción de perfiles especiales para carpintería metálica— que
se vieron frustradas por falta de la autorización pertinente.
Consecuentemente, la empresa se vio en graves dificulta-
des y en los años sesenta las instalaciones se arriendan a
diferentes firmas. Empresas como Intex, Silen o Estenca se
ubicaron en lo que habían sido los pabellones de la antigua
fábrica Ziako y además se acometieron nuevas obras para
adecuarla a las nuevas necesidades. Será entonces cuando
el edificio adquiera su imagen actual. En 1966, de la mano
del ingeniero industrial Jesús Erausquin, se emprenden di-
ferentes obras para aumentar la superficie útil de la antigua
fábrica. Entre otras ampliaciones se adosó una nave hacia
la carretera a lo largo de toda la fachada de la nave original
que doblaba la anchura de ésta, y se levantó un piso en la



Lantegiko eraikinaren ikuspegi orokorra. (Santi Yaniz)
Vista general del edificio fabril. (Santi Yaniz)



Bulego eta etxebizitza eraikina. (Santi Yaniz)
Edificio de oficinas y vivienda. (Santi Yaniz)

«egitura aldatu gabe, lerro berari eutsiz» egin zuten, aurreko eraikinaren «estetikatik» gehiegi aldendu gabe. Halarik ere, esku-hartze hauek jatorrizko eraikina ezkutatu egin zuten, eta, gaur egun, bulego- eta etxebizitza-eraikinak baino ez dio eusten hasierako proiektuari.

Ziako fabrikaren jatorrizko eraikinak erabateko lerrogarbitasuna zuen. Ekoizpen-nabea atal horizontal trinkoa zen, inposta-lerroz nabarmendutako bao etzanek urratuta. Kontraste handia egiten zuen bulego- eta etxebizitza-atalaren bolumen-jokoarekin. Azken horietan, zutabe bakar-tuen gainean, masa eta hutsarte oso ondo uztartzen dira, eta eraikinari plastikotasuna ematen diote. Atal horretan, gainera, albo-fatxada osoa hartzen duen bao jarraitu bertikala dago, bai eta argizulo ugari ere, konposizio orokorrean nagusi zen lerro horizontalarekin kontraste eginez. Horizontaltasuna terrazek, teilatu-hegal irtenek, barandek eta tankerako elementuek nabarmentzen dute. Eraikina zuriz margotuta zegoen, eta, egun desagertuta badaude ere, «ZIAKO» sozietatearen izena ageri zen bertikalean, eta, horizontalean, berriz, «persianas-tarimas» etxearen xedea. Horiexek ziren, hain zuzen ere, fatxada nagusiaren apaingarri bakarrak. Lerro garbiek eta bolumen-jokoek arkitektura modernoa gogorarazten digute, Le Corbusier arkitektoari erreferentzia argia eginez.

Ziako fabrikaren proiektuak eta burutzapenak Laborde Hermanos S.L. fabrika zaharraren konposizio-eskema berbera daukate. Lantegi hori kale berean zegoen; ekoizpen-

crujía norte de la misma. Todo ello se pretendió hacerlo «sin que varíe la estructura, guardando la misma línea» y sin desentonar con «la estética» del edificio anterior. Con todo, éste quedó enmascarado por las actuaciones que se llevaron a cabo y en la actualidad solamente el edificio de oficinas y vivienda es el que se mantiene fiel las ideas del proyecto inicial.

El edificio original de la fábrica Ziako respondía a una pureza de líneas absoluta. La nave de producción, ideada como un sólido cuerpo horizontal rasgado por una línea de vanos apaisados subrayada por impostas, contrastaba poderosamente con el juego de volúmenes del cuerpo de oficinas y vivienda. Aquí, sobre pilares exentos, la masa y el hueco se combinan perfectamente dotando de plasticidad al edificio. Es en este cuerpo, además, donde se ampliaba el catálogo de vanos con un hueco corrido vertical que abarca toda la fachada lateral y numerosos óculos, en contraste con la línea horizontal que dominaba la composición general, acentuada por las terrazas, aleros en volado, barandillas... Pintado de blanco, en él los rótulos de la razón social, «ZIAKO», en vertical, y el objeto de la firma, «persianas-tarimas», en horizontal en la fachada principal (hoy desaparecidos), eran las únicas concesiones decorativas que se permitieron. Sus depuradas líneas, su juego de volúmenes, remitían de manera directa a la arquitectura moderna con claras referencias a Le Corbusier.

El proyecto y ejecución de la fábrica Ziako repite el esquema compositivo de la primitiva fábrica Laborde Hermanos S.L. La articulación del espacio productivo en una

esparrua nabe monolitiko batean egituraturik zegoen, multzoaren mutur batean kokaturiko etxebizitza-erakin bati atxikita. Ziako lantegia altxatzeko eskema bera baliatu zuten. Baina, lotura formaletik harago, bi lantegien artean lotura estilistikoa ere ageri da, bi proiektuetan ere Luis Tolosa Amilibiak parte hartu baitzuen. Laborde Hermanos SL sozietatean Manuel eta Enrique Laborde industria-ingeniariekin batera, eta Ziakon, berriz, Juan Ignazio Ieregi industria-ingeniariekin. Bi lantegien artean hamabi urteko tartea dago, eta Ziako obra sintetikoagoa da, formalki garbiagoa, erradikalagoa agian.

Tolosak teknika berrien, materialen eta hizkuntza formalaren aldeko apustu garbia egin zuen, obra hauetan ageri den moduan. Arkitektura modernoa bikain ezagutzen zuen eta konbentziturik zegoen funtzionaltasunari eta berrikuntza estetikoari ekarri handia egin ziezaiokeela. Horrenbestez, ezaugarri horiek bere obra guztietan ageri dira; industriarekin lotutakoetan, batez ere. Laborde Hermanos SL, Nueva Cerámica de Orio eta Ziako enpresetarako egindako lantegiak, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura moderno goiztiarreneko adibide onenetako batzuk dira, ezbairik gabe.

BIBLIOGRAFIA

AZPIRI ALBÍSTEGUI, A. (COORD.), 2004, 262 • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J., 2004, 325-333 • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J.; TRUTXUELO GARCÍA, M., 2002, 343-376.

nave monolítica, anexa a un edificio de viviendas situado en un extremo del conjunto, había sido ya ensayada en esta fábrica, ubicada en la misma calle. Pero más allá de la conexión formal existe una conexión estilística entre ambas fábricas, que se explica por la participación de Luis Tolosa Amilibia en ambos proyectos. En el caso de Laborde Hermanos S.L., junto a los ingenieros industriales Manuel y Enrique Laborde, y en Ziako en colaboración con Juan Ignacio Yeregui, también ingeniero industrial. Con una distancia de doce años, Ziako representa una obra más sintética, de una mayor depuración formal, tal vez más radical.

La apuesta inequívoca de Tolosa por las nuevas técnicas, materiales y lenguaje formal se materializa en estas obras. Su profundo conocimiento de la arquitectura moderna y el convencimiento de su contribución en busca de la funcionalidad e innovación estética se manifiesta en toda su obra, sobre todo en su obra industrial. Sus fábricas para Laborde Hermanos S.L., Nueva Cerámica de Orio y Ziako, entre otras, constituyen sin ninguna duda algunos de los mejores ejemplos de la arquitectura moderna más temprana de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

BIBLIOGRAFÍA

AZPIRI ALBÍSTEGUI, A. (COORD.), 2004, 262 • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J., 2004, 325-333 • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J.; TRUTXUELO GARCÍA, M., 2002, 343-376.